

# Zurekin **ZARAUTZ** gara

Herri Programa  
2019



**ehbildu**

Zarautz

# Oinarri ideologikoak

Hauteskunde programaren oinarriak zehazteko gure herriaren soziologiari erreparatu behar diogu eta, hortaz, testuinguru politikoari eta horretan oinarrituta proposatutako hauteskundeetarako helburuei. Hala ere, ezin ahantz testuinguru orokorra, herriaz gaindiko testuinguru politiko eta soziala.

Herriaren soziologia aztertuta, beraz, zuzendu behar gatzazkiona ezkerreko jendarte esparrua da, sistema errotik aldatzea eskatzen duena; transmititu behar ditugun politika nagusiak eredu edo ordena politiko, ekonomiko eta sozial berri bati dagozkionak dira.

Sistemaren errotiko aldaketa ezin dugu ulertu 78ko erregimenaren haustura eta herri honen burujabetzarako determinaziotik at. Estatuan ematen ari den inboluzio politiko eta soziala probestu behar dugu jendartean gehiengo zabalak artikulatzeko erabakitze eskubidearen aldarripean.

Erabakitze eskubidea praktikara eramatea demokrazian sakontzea da.

Bide horretan, estatu burujabe baten aldeko hautua egiten dugu. Jakin badakigulako, gutxi batzuen interes politiko eta ekonomikoen gainetik, pertsonen eskubideak eta beharrak erdigunean jartzen dituen jendarte baten beharra dugula; zerbitzu publikoak indartzeko hautua egiten dugula, pertsonen eskubideekiko berme eta kohesio sozialaren sostengu gisa; ekonomia sozial eta produktiboan oinarrituko den ekonomia erdua behar dugula, non langile klasearen inizatiba eta ekintza bultzatuko diren; banka publiko komunitarioan oinarritutako sistema finantzario berri baten beharra dugula; sorburuan anitza den jendarte baten defentsa egin nahi dugula, kohesio sozialerako elementu nagusi gisa; eta Euskal Herriaren eskubide politiko, kultural eta linguistikoen defentsa transmititu behar dugula, oinarrizko eskubide beharko lukeen heinean.

Hau guztia ezin da ardaztu praktika feministarik gabe. Etorkizuneko jendartea balore feministetan hezi behar dugu, heteropatriarkatuak ezarritako sexu-genero sistema errotik irauliz. Horretarako, gaurdanik, praktika politiko ororen erdigunean kokatu behar dugu feminismoa, jendarte berdinzale eta osasuntsu baten berme bakar gisara. Eta estrukturala den indarkeria matxistari aurre egin behar diogu irmotasun osoz.

Era berean, bakegintzan irekitako bidean sakontzen jarraitu behar dugu, gatazkaren ondorio guztiak gaindituz eta gatazka armatua pairatu duten pertsona ororen errekonozimenduan urratsak emanez.

Finean, Estatu berri baterako zimenduak eraikitzea izango da datozen urteetako erronka nagusia, kalean zein instituzioetan, maila guztietan. Herritar ahaldunduak behar ditugu fase berri honetan, haien etorkizuna besteren eskuetan uzteko prest egongo ez direnak. Eta herriaren erabakiei erantzuna eman ahal izateko prestatu behar ditugu instituzioak, demokrazian sakonduz, herriaren boterea egiazkoa izan dadin.

Horregatik dugu beharrezko, fase honetan inoiz baino gehiago, komunitateen artean sarea jostea. Komunitate txikiz osatutako komunitate handia eraikitzea da gure erronka; identitate ezberdinez osatutako herria. Herri bat, bakarra, milaka bizipenez aberastua, ehunka korapiloz josia, hamarnaka ahots eta hizkuntzez eraikia. Herri bat, izandakotik edango duena baina, izan nahi duen horretara begiratzen duena. Herri bat, herri kontakizun propio batetik abiatuko dena, urteetako legatua bere eginaz baina, etorkizuna denen artean, komunitatean, eraikiko duena.

# Testuingurua

Herri bakoitza bakarra da. Zarautz bakarra da, eta milaka norbanakoren egoera eta bizipenez osatua dago. Pertsona horiek guztiak, ordea, herri batean bizi dira, denen artean komunitate bat osatuz.

2019ko gure programak pertsona bakoitza erdigunean jarri nahi du, Zarautz hobeago bat egingo duen programa izan nahi du. Zarautzar guztion artean egiten dugu herria, eta gure xedea bakoitzak bere bizi proiektua bertan egin ahal izango duen herria eraikitzea da. Bakoitzak, norbanako bezala, bizitza duin bat izateko, baina komunitatea osatzen duen eta elkar zaintzen duen herria garelako kontzientzia izanez.

Horretarako udaletxeko atea parez pare irekiko ditugu, herritar ahaldunduak behar ditugulako, aurrera begiratu eta parte hartuko duten herritarrak. Herritarren parte hartze prozesuetan oinarritutako erabakiak hartzeko beharrezko baliabideak jarritz, gure herriak duen aniztasunari erantzungo dion herri bat eraiki nahi dugu.

Hau guztia lortzeko, hainbat arlo landu eta hobekuntzak egiteko neurriak zehaztu ditugu. Horietako gehienek elkar eragiten dute, ez dira asmo isolatuak; eta gai batzuk guztiz zeharkakoak dira, egitasmu guztiak bustitzen dituztenak, hala nola, elkarbizitza, ingurumena, euskara, emakumeen ahalduntzea edo ekonomia.

Programaren zati handiena datozen 4 urteetako asmoekin osatu dugu, baina lehenengo atala etorkizuneko Zarautz bat amesteko erabili dugu. Nolako Zarautz nahiko genuke 2035 urtean izan? Arriskua dagoelako 4 urteetan egingo dugun asmoetan bakarrik zentratu eta epe luzerako proiektuez ahazteko. Eta guk hori ez dugu nahi.

Ondoren, bakoitzaren bizi proiektua bertan gauzatuko duen herri bat izateko 4 ardatzak zehaztu ditugu: enplegua, etxebizitza, ongizatea eta kultura hain zuzen ere. Eta lau ardatzen jarraian, oso garrantzitsuak diren beste hainbat puntu ere zehaztu ditugu.

Guztira 18 atalez osatutako programa, Zarautz hobeago bat egingo duen programa.



# Etorkizuneko Zarautz

*Eta zein da guk amesten dugun Zarautz?*

Ongizatean eta justizian oinarritutako herri bat izan nahi dugu. Herritar bakoitzak duintasunez bizitzeko aukera izango duen herria, herritar oso izan eta sentitzeko oinarritzko eskubideak bermatuta izango dituen.

- » Adin ezberdinetako pertsona orok bere beharrak aseta izango dituen: haur, gazte, heldu eta adinekoek beren bizi proiektua aurrera eramateko laguntza izango duen herria.
- » Mundu ikuskera aurrerakoia eta berdinzalea bultzatuz, emakume ahaldunduak biziko diren herria, instituzioak ondoan izango dituen mugimendu feminista duena.
- » Ezberdintasun guztiak errespetatu eta aitortuko dituen herria, zeinak, genero eta sexu ezberdintasunen gainetik, pertsonak jarriko dituen bizitzaren erdigunean.

Hau lortzeko ezinbestekoa den parte-hartze eta elkar zaintze kultura sendoa duen herria izatea nahi dugu. Norbanako bakoitzaren jardunak, bizipen askoren baturak, ezberdinen arteko harremanek eraikitzen dutelako herri bat.

Kulturalki aberatsa den herri bat amesten dugu. Sortzaileen eta hartzaileen arteko elkarrizketa etengabea izango duena. Sortzaileek non sortua baduten herria, eta sortutako hori aurkezteko eta herritarrekin batera gozatzeko aukera izango duena (azpiegitura egokiekin). Euskal kulturak dituen aurpegi ezberdinez eta gainontzeko aukera anitzaz gozatzeko aukera emango duena. Zarautz bezalako herri batek Euskal Herriko kulturaren abangoardian egotea merezi duelako.

Zarauztarrok bertan lan egiteko aukera izango duen herria izan nahi dugu. Hiru sektoreen oreka mantentzen duen Zarautz:

- » Tokiko nekazaritza sendoa eta lurraldearen erabilera arduratsua ziurtatzen duena. Bertako nekazariak babestuak sentitzen diren herria.



- » *Industria indartsu bat izango duena. Enpresa mota eta proiektu berriak sustatzen dituen herria.*
- » *Urte osoko herritarrei begira dauden zerbitzuak indartzen dituena.*
- » *Turismo eredu jasangarri bat sustatzen duen herria, gure hizkuntza eta kultura aintzat hartzen dituena eta urte osora zabaldua egongo dena.*

Zarautzen bizi nahi duen herritarrek bertan etxe duin bat izateko aukera izango duen herria nahi dugu. Bakoitzaren etxebizitza eskubidea bermatuta egongo dena. Lurzorua, espekulazio ekonomikorako baino, bertako biztanleen zerbitzura izango duen herria.

Naturarekin bat egiten duen herri bat izan nahi dugu, naturaren kontserbazioari benetako garrantzia eman eta bertako natur guneak babesten dituena. Lurraren balioa agerian jarri eta naturalki duen garrantziaz jabetuta dagoen herria.

Mugikortasunari begiratu, herri adeitsu bat amesten dugu:

- » *Zarauzko ipar aldetik hegoaldera herriko edozein puntutatik joateko aukera izango duena, erdi-erditik banatzen duen trenbidearen trabarik ez duena. Arazo honi irtenbidea emateko, beharrezko azterketa eta plangintzak egin behar dira, proiektu bat osatu, etorkizunean errealitate bat izan dadin.*
- » *Inguruko herriein ongi komunikatua egoteko trenbideak behar dituen egokitzapenak eginak dituena (zabaltzea, bikoiztea).*
- » *Nafarroa kalea atsegin bat izango duen Zarautz, trafiko gutxiagorekin eta herritarrentzat izango dena. (Hori lortzeko, gaur egungo autopistari beharrezko egokitzapenak egitea eta honek saihebidetuta funtzioa ere izatea proposatzen dugu)*

Hau guztia modu ordenatu eta arduratsu batean egiteko Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan berria egingo dugu (2008koa zaharkitua geratu da).

# Herri bat izateko 4 ardatz nagusi

## **1 Enplegu duina eta egonkorra indartu eta saritzeko neurriak**

Herriko eragile sozioekonomikoen arteko elkarlana sustatu eta udal kontratazioetan klausula sozialak ezarriko ditugu.

Herritarrek euren bizitza-proiektuak garatu ahal izateko, aberastasuna sortzea eta banatzea ezinbestekoa da. Gure lehentasun nagusia da enplegu duina eta egonkorra herritar guztientzako aukera izatea.

Zarautzen sektoreen arteko oreka bideratuko dugu. Lehen sektoreari laguntza emango diogu azpiegiturak hobetu eta gaurkotzeko. Baserritarrei euren produktuak merkaturatzeko erraztasunak emango dizkiegu. Enplegu industrialak indartzeko neurriak hartuko ditugu. Enpresen eta Lanbide Heziketaren arteko saretzea bideratu eta erraztuko dugu. Hirugarren sektoreari arreta ipiniko diogu, Zarautzen ostalaritza urte osokoa, bizigarria eta jasangarria izan dadin. Merkataritza profesionala, gertukoa eta kalitatekoaren alde egingo dugu. Sektoreen arteko oreka eta eragileen arteko lankidetzaren lehentasunezkoak izango dira.

Enpleguaren arloan udal kontratazioetan neurri ausartak hartuko ditugu. Zarautzen Udala da zuzenean eta zeharka herriko lanpostu gehien sortzen dituen. Hori dela eta, kontratazio publikoetan enplegu duina sustatuko dugu eta laneratzeko arazo gehien izan ditzaketen pertsonen kontratazioak sarituko ditugu. Udalak erantzukizunez jokatu behar du herritarrek enplegua, ongizatea eta bizitza kalitatea izan ditzaten.

- » Udal kontratazioan 1.200 euroko gutxieneko soldata garbia bermatzeko neurriak hartuko ditugu.
- » Enplegu egonkorra eta duina sortzeko urtero 400 mila euro bideratuko ditugu enpresetara, gizon-emakumeen arteko soldata arrakala gainditzea lehenetsiz.
- » Enplegu industrialak sendotuko dugu, Lanbide-heziketa eta enpresen arteko elkarlanarekin.

## **2 Zarautztarren premiei erantzungo dien etxebizitza politika**

Epe motzean eraginkorra eta epe luzera iraunkorra izango den etxebizitza eta hirigintza politikak garatuko ditugu.

Etxebizitza eta hirigintza elkarri lotuta ageri dira. Zarautztarren etxebizitza eskubidea bermatu dezagun, hirigintza politika zehatzak garatu behar ditugu. Hirigintza gizarte premiei erantzutera bideratu eta herritarren bizitza proiektuen zerbitzura ipiniko dugu. Espekulazio ekonomikora bideratutako lurzorua garapenari amaiera emango diogu.

Herriaren garapenerako eredu trinkoa hobesten dugu: mugikortasun jasangarria, oinezkoena eta bizikletena bultzatuz, baliabideen erabilera arrazionalagoa, zarauztarren arteko erlazio eta integrazio handiagoa eta, ondorioz, zarauztarren bizitzaren soziabilitatea indartuz. Eremu naturalen okupazio txikiena aintzat hartu eta jarduerak egun eraldaturiko lurzorura mugatuko dira.

Zarauztarrok Zarautzen etxebizitza izateko politikek ere ildo horri jarraituko diote. Hori dela eta, gure lehenasuna izango dira eraikitako etxebizitza parkean eragitea eta alokairu sozialeko etxebizitza publikoko parke sendoa. Eraikita dagoen parkean eragiteko, etxe hutsak merkaturatzeko neurriak martxan jarriko ditugu, alokairua sustatzeko politika irmoak bideratuko ditugu eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak areagotuko ditugu. Gazteek eta herritar orok etxebizitza eskuragarriak izan ditzaten, epe motzeko eta epe ertain-luzeko erabakiak hartuko ditugu.

- » Alokairua sustatzeko diru-laguntza lerroak martxan jarriko ditugu. Batetik, alokairura bideratutako etxebizitza aukera zabaltzeko. Bestetik, alokairua erosketara baino aukera erakargarriagoa izateko.
- » 200 etxebizitza publiko datozen lau urteotan alokairu sozialean merkaturatuko ditugu.

## **3 Inor bakarrik utziko ez duen herri kohesionatua**

Zarauztar guztion bizi-baldintzak hobetzeko gizarte-zerbitzuetako inbertsioak lehen lerrora ekarriko ditugu.

Guztion behar materialak aseko dituen ongizate-estatu duin baten ezinbesteko zutabe dira gizarte-zerbitzuak. Politika sozial eraginkorrak behar dira gizarte kohesio sendo bat lortzeko. Udal zerbitzuen eraginkortasuna bermatu eta herriko eragile zein beste administrazio publikoekin elkarlana sustatuko ditugu bide horretan.

Mendekotasunen bat edota desgaitasunen bat duten pertsonen eman beharreko zerbitzuan hobekuntzak egingo ditugu, baita pertsonalaren formazioan sakondu ere. Zaintzari ere duen garrantzia itzultzeko pausoak ematen jarraituko dugu, hala guztion bizi duina bermatzeko zerbitzu moduan nola gizon eta emakumeon artean banatu beharreko eginkizun bezala.

Pobreziari aurre egiteko eta behar ekonomikoak dituzten pertsonen baldintza duinetan bizitzeko Udaletik emandako zerbitzuetan ez dugu murrizketarik egingo. Halaber, behar berrien arabera zerbitzuetan zabalpenak eta egokitzapenak egingo ditugu. Euskal pentsio sistema publikoa sortzeko lan egingo dugu baina horra iritsi bitartean pentsiodunei laguntzen jarraituko dugu, eta bereziki emakume alargun pentsiodunei arreta berezia jarriko diegu.

Gizarte-zerbitzuen mapa soziala garatzen eta hobetzen jarraituko dugu gainontzeko administrazio publikoekin, kasuan kasu eta sor litezken arrisku berriei behar bezalako erantzuna emateko erreflexuak edukiz. Neguetxearekin gertatu dena ekiditeko, zerbitzua bermatuko dugu eskumenen zalantzen gainetik.

- » 1.080 euro baino gutxiago jasotzen duten pentsiodunentzat diru-laguntza lerro bat irekiko dugu: osasun-gastuetarako, etxeko irisgarritasuna hobetzeko, aurrezpen energetikorako...
- » Gizarte-zerbitzuak eskaintzen diren azpiegituren aprobetxamendu azterketa egingo dugu, beharrezko egokitzapenetan eta pertsonalaren formazioan sakonduz.

# **4 Elkarlana eta sorkuntza erdigunean izango duen herri-kultura**

Herrian sortu eta jasotzen den kultur ondarearen zabalpena lehenetsun bihurtuko dugu berriro guztion elkarlanarekin.

Euskara eta kultura dira herri honen nortasunaren orube garrantzitsuenak. Horregatik, bereziki landu eta zaindu beharreko arloak iruditzen zaizkigu. Sortzaileen eta hartzaileen arteko elkarrizketa etengabea izan behar du kulturak, sormena bultzatu, sortzeko lekuak eskaini eta sortutakoa aurkezteko eta herritarrekin batera gozatzeko eta konpartitzeko espazioak antolatuz. Zirkuitu hori osatzeko ahalegina egin behar du Udalaren kultura politikak.

Hau guztia antolatzeko, Kultur Mahaia berriro abian jarriko dugu, arlo ezberdinetako eragileek eta sortzaileek dituzten beharrak aztertzeko eta Udaletik bideratzeko. Kultur ekitaldien agertoki izan daitezkeen herriko gunek egoki kudeatzea ere ezinbestekoa da.

Hau guztia egoki kudeatuta, euskal kulturaren eta bertako sortzaileen lanetan oinarritutako eskaintzarekin, herriari bizitza eta hauspoa ematen zaio, edonork gozatzeko ekitaldi ugariarekin. Horrek, noski, inguruko bisitariak ere erakartzen ditu, eta eragin zuzena du bertako kultura eta hizkuntza oinarrian duen turismo eskaintza garatzeko.

Kultura berriro ere Zarautzen marka nabarmenena izatea nahi dugu. Horretarako, sormena sustatzea, kultur eragileen lana aitortzea, dagokien protagonismoa ematea eta kulturarako eremuak berreskuratzea eta daudenak egoki kudeatzea izango dira gure kultura alorraren oinarriak.

- » *Kultur Mahaia berreskuratuko dugu herriko kultur ekimenak sustatu, koordinatu eta kultura gunek nola antolatu erabakitzeko, herriko sortzaileei egindako lanak ezagutarazteko aukerak emanez*
- » *Santa Klara kultura ekitaldietarako eta sormenerako gune bihurtuko dugu.*
- » *Sanz Enea osoa liburutegi bilakatuko dugu.*



# Neurri zehatzak

## Enplegua:

- » Udal kontratazioan 1.200 euroko gutxieneko soldata bermatzeko neurriak hartuko ditugu.
- » Enplegu egonkorra eta duina sortzeko urtero 400 mila euro bideratuko ditugu, gizon-emakumeen arteko soldata arrakala gainditzeari lehentasuna emanez.
- » Enplegu industrialara sendotuko dugu, Lanbide-heziketa eta enpresen arteko elkarlana bultzatuz.

## Etxebizitza:

- » Alokairua sustatzeko diru-laguntza lerroak martxan jarriko ditugu. Batetik, alokairura bideratutako etxebizitza aukera zabaltzeko. Bestetik, alokairua erosketa baino aukera erakargarriagoa izateko.
- » 200 etxebizitza publiko datozen lau urteotan alokairu sozialean merkaturatuko ditugu.

## Gizarte zerbitzuak:

- » 1.080 euro baino gutxiago jasotzen duten pentsiodunentzat diru-laguntza lerro bat irekiko dugu: osasun-gastuetarako, etxeko irisgarritasuna hobetzeko, aurrezpen energetikorako...
- » Gizarte-zerbitzuak eskaintzen diren azpiegituren aprobetxamendu azterketa egingo dugu, beharrezko egokitzapenetan eta pertsonalaren formazioan sakonduz.

## Kultura:

- » Kultur Mahaia berreskuratuko dugu herriko kultur ekimenak sustatu, koordinatu eta kultura guneak nola antolatu erabakitzeke, herriko sortzaileei egindako lanak ezagutarazteko aukerak emanez.
- » Santa Klara kultura ekitaldietarako eta sormenerako gune bihurtuko dugu.
- » Sanz Enea osoa liburutegi bilakatuko dugu.

# Neurriak arloz arlo

## ELKARREKIN BIZI GARA

### BIZIKIDETZA

EH BILDUK memoria inklusiboaren norabidean lan egiteko bere determinazioa agerian utzi du, inolako biktimarik baztertu edo sailkatu gabe eta giza eskubideen aurkako inolako urraketarik ahaztu gabe. “Inoiz berriz ez” politika sendotuko duen memorian sinisten dugu. Inoiz berriz giza eskubideen urraketarik ez. Inoiz berriz oinarri edo helburu politikoen norabidean indarkeriarik ez. Inoiz berriz sufrimendu gehiagorik ez euskal gizartearentzat. Iraganean izan diren tragediak berriz errepikatu ez daitezen hartu beharreko neurriak inplementatzeko beharra aldarrikatzen dugu. Egia, justizia eta erreparazioa nahi ditugu, ez iraganean trabatuta geratzeko, baizik eta etorkizun hobe batera bideratu eta proiektatu ahal izateko. Oraindik gaur egunean indarrean dagoen giza eskubideen urraketa oro konpondu nahi dugu, hauek ere iraganeko kontua izan daitezen. Gaur egun zirkunstantzia objektibo egokiak ditugu, iragan dramatiko baten ikuspegi kritikoan, orainaren aurrean daukagun erantzukizuna eta etorkizunarekiko konpromisoan lan egiteko.

- » Giza eskubideen urraketa jasan duten biktimen espazio bat sortu. Foro horrek herrian gertatutakoak konpartitu eta hurkoarekin enpatiak sortzeko balio behar du. Herrian egin beharreko ekitaldiek bereziki foro horretatik atera beharko lukete.
- » Denbora lerroan definitutako Zarauzko herrian gertatutakoak jasoko dituen ikerketa martxan jartzea. Ikerketa horrek kontuan izan beharko ditu orain arte argitaratutako informazioa, Forotik sortu litekeen informazioa eta orain arte argitaratu ez diren kasu posibleak.
- » Giza eskubide urraketak edo salbuespeneko legediaren ondorioak sufritzen dituzten herritarrei laguntza eskainiko diegu.

### HERRITARREN PARTE HARTZEA

Herritarren partaidetza sustatzea ere izango da gure ordezkarien arduren artean. Hain zuzen ere, herritarren ekarpenak administrazioaren jardunean txertatzeko bide eta baliabideak areagotu behar ditugu.

Erabakiak hartu aurretik zuzeneko partaidetza sustatu behar da, herritarren parte-hartzea indartuko duten politikak landu eta parte-hartzean oinarritutako demokrazian sakondu beharra dago. Horretarako, kontuan hartuko da emakumeek gizonen aldean duten egoera asimetrikoa, eta berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko da.

Udalean ordezkatzeko gaituzten pertsonak herri-borondatearen kudeatzaile errealak izateko eredu bat garatu nahi dugu.

- » Parte-hartze kultura errotzeko eta prozesuetan eragiteko “Herritarren partaidetza eskola” sortuko dugu, herritarrak, udaleko zinegotzi guztiak, udal funtzionarioak eta erakundeetako arduradun teknikoak parte-hartzearen printzipioetan modu etengabearen hezteko eta inplikatzeko.
- » Aldian-aldian udalbatzako kideak auzo batera hurbiltzeko aukera abian jarriko dugu. Batzar hauetan auzo elkarteak edo norbanakoak alde aurretik eskatutako gaiak eztabaidatu, landu edo aztertuko dira.
- » Sindikoa, herritarren eskubideen defendatzailearen figura, sortuko dugu.
- » Udalak herriari egiten denaren berri zuzenagoa emateko aukera gehiago aztertuko ditugu.
- » Herritarren Arreta Zerbitzuan sakondu eta kalitatezko hobekuntzarako neurriak hartuko ditugu.

# FEMINISMOA

Oro har emakumeak subjektu autonomo gisa onartuak gara, eta eskubideen parekidetasunean aurrerapena eman da. Hala ere, azken urteotan eskubideetan izandako lorpen horietako dezente kolokan daude, krisi ekonomikoaren aitzakiaz baliatuz hainbat neurri murriztaile ezarri direlako.

Hauek, genero rola indartzeko eta gizon eta emakumeen arteko zapalkuntza ereduan sakontzeko helburua dute.

Urtetako borroka feminista eta sozialari esker, emakumeek, berdintasun formalari erreparatuz gero, eskubide ugari eskuratu dituzte, baina eskubide guztien jabe izan gabe jarraitzen dute gaurko egunean. Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren erronkak politika publiko guztiak busti behar ditu. Indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezkoak izango diren inbertsioez lagunduriko politika publiko eraginkorrek egiteko garaia da, egungo politiketan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna izan behar da, eta prekarietate sistemikotik ateratzeko bitartekoak aktibatu behar dira.

Gure herria balore feministetan hazi eta hezteko baliabideak jarriko ditugu.

- » Eraso sexisten aurkako protokoloa eragile guztien artean ehunduko dugu, elkarlana sustatuz, guztion erantzuna bateratua izan dadin.
- » Sexu-heziketan eta sexu-aholkularitzan zabaltzen eta sakontzen jarraituko dugu, sexu hezkuntza herritar ororen eskura jarritz.
- » Hezkuntza afektibo-sexual feminista sustatuko dugu, gazteenen eta aniztasun intelektualdunen artean batez ere, beren sexualitatearen eta gorputzaren gaineko kontrola handitzeko, genero-rol eta genero-estereotipoen aurka borrokatzeko eta indarkeria matxisten arrazoiei aurre egiteko.
- » Emakume etxearen funtzionamendu autogestionatu eta parte-hartzailea bultzatuko dugu, adostasun kolektibo bat lortzeko.
- » Ahalduntze eskolak indartu eta zabalduko ditugu.
- » Berdintasun Kontseiluak duen garrantzia berriz ere aintzat hartu eta erabakiak hartzeko gune bilakatuko dugu.
- » Zaintza lanak erdigunean jarriko ditugu, hauei beren balioa aitortuz eta kolektibizatuz, eta herrian kolektibo hauen parte hartzea bermatuz.

# PERTSONA ERDIGUNEAN

## ADINEKOAK

Adinekoen talde honetan egoera oso ezberdinetako jendea aurki dezakegu. Asko dira garai hau osasuna eta pozarekin bizitzen dutenak, baina adinean gora egin ahala zailtasunak handitzen joan ohi dira.

Horiek guztiek ahalik eta bizi kalitate onena izatea da gure helburua, eta horretarako Udal politikak bi norabidetan eraiki behar ditugu: alde batetik, dependentzian bizi diren pertsonak artatuz; eta, bestetik, autonomian bizi direnak babestuz eta hala bizi daitezen ahalbidetuz.

Zainketei dagokienez, bereziki indartu nahi ditugu etxean eta komunitatean eskainitako gizarte-zerbitzuak, horiek direlako pertsonak gustukoak dituztenak, pertsonalizazio handiena eskaintzen dutenak eta komunitatearekiko harremana ahalbidetzen dutenak.

Pertsonak komunitatean zaintzeko eta haiei eguneroko bizitzan laguntzeko ahalegin berezia egingo dugu, besteak beste etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartuz.

- » 1.080 € baino gutxiago jasotzen duten pentsiodunentzat diru-laguntza lerro bat irekiko dugu. Diru-laguntza horiek gastu osagarrietarako bideratuko dira (zenbait osasun gastu, etxeko irisgarritasuna hobetzeko, aurrezpen energetikorako...)
- » Gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituen laguntzen informazio garbia emango da, hala behar duen orori erraztasunak emanez.
- » Adinekoen mahaiarekin jarraituko dugu.
- » Adinekoen zaintzari behar duen garrantzia emango diogu:
  1. Familiekin hartu-emanak sakonduz.
  2. Bakarrik bizi diren adinekoen jarraipena eginez.
  3. Etxez-etxeko laguntza indartuz.
- » Eguneko zentroa handitzeko aukerak aztertuko ditugu.
- » Jubilatuen etxeen premiak aztertu eta beharrezko neurriak hartuko ditugu.
- » Adinekoek kirolaz eta aisialdiaz gozatu dezaten programa garatzen jarraituko dugu: Gimnasia parkeak, Mugibil eta Irtenbil.
- » Bakarrik bizi diren adinekoentzako irtenbideak aztertuko ditugu: etxebizitza komunitarioak, gazteekin konpartitutako etxeak...

## GAZTEAK

Gazteak, herri honen oraina izateaz gain, etorkizuneko jendartea eraikiko duten herritarrak dira. Hauek, oro har, mundua aldatzeko prest daude, eta horretarako lehenik eta behin, gazteen ahotsa Udaleko erabaki politikoetan presente egotea beharrezko iruditzen zaigu.

Bestalde, familien etxea utzi eta autonomia propioz bidea ekiteko fase garrantzitsua da gazteena, norberak nahi eta sentitzen duen momentuan asetzeko aukera beharko lukeena. Egun, lanerako eta etxebizitza baterako sarbideak dira horretarako oztopo nagusi. Horregatik, hauen inguruan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

- » Gazteen lehentasunezko beharra emantzipazioa izanik, etxebizitza eta enplegu duinaren lanketa egin eta

honen inguruko neurriak hartuko ditugu:

1. Alokairu parke zabal batekin, alokairuko diru laguntzekin, egitasmo berritzaileak landuz eta aukera ezberdinak eskainiz.
2. Administrazioetik gazteen enplegu duina eta egonkorra bultzatuko dituen neurriak hartuz.
3. Gazte ekintzaileak babestu eta erraztasunak eskainiz
  - » Gaztetxearen etorkizunerako alternatibak elkarrekin landu nahi ditugu, honek barne biltzen duen herri mugimendu guztiaren jarduna ere bermatzeko.
  - » Gazte eta udalaren arteko hartu-emanerako gune bat adostuko dugu. Gazteen ahotsa Udaleko erabaki politikoetan integratzea beharrezko urratsa dela ulertzen dugu. Horretarako, Gazte Foroa sortzea proposatzen dugu, herriko gazte eta eragileei jardun publikoan parte hartzeko aukera eskainiz. Foro fisikoaz gain, foro digitalak ahalbidetuko ditugu gazteen kezka eta proposamenak modu zuzenean jasotzeko.

## MIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA

Gure artera iritsi diren bateko eta besteko zarauztarrek gure herria aberasten dute, sorlekuko kultura, hizkuntza eta ohiturekin. Horiek guztiak aitortzea eta babestea dagokigu guri. Horregatik, kultura-aniztasuna, elkarren errespetua eta elkarren aitortza gure herriaren ikur bihurtu nahi ditugu. Ikur ez ezik, gure eguneroko jardun eta balio ere bai.

- » Orain arte egindako ekimenak indartu eta jarraipena emango diegu: Harrera plana, Euskara eta Harrera ikastaroa, Zurrumurruen aurkako sarea, Bizilagunak ekimena, Zarauztik Mundura moduko elkargune eta jaiak, eta abar.
- » Herriko ekimenetan zarauztar berriek parte hartzeko bideak sortu eta harreman sareak eraikitzen jarraituko dugu herriko eragileen eta etorkinen artean.
- » Sortzez zarauztarrak ez diren herritarren inplikazio handiagoa lortzeko ekimen eraginkorrak gauzatuko ditugu.
- » “Zarauztik Mundura” manifestuarekin bat eginez bertan adierazitakoa beteko dugu.

## SEXU ANIZTASUNA

Jendarteratze sexistak eragin zuzena dauka sexualitatea, generoa eta gorputza eraikitzekeo garaian; araututakotik irteteak, gainera, fobiak, jazarpenak eta bazterkeriak eragiten ditu gaurko egunean.

Elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko dituzten ekintzak eta politikak garatzea ezinbestekoa da, gizon-emakumeek askatasunean aukeratutako bizitza moldeak diskriminatu, zanpatu eta epaituko dituzten jarrerak baztertuz.

Azken urteotan, elkarte zein kolektibo lesbiana, gay, bisexual eta transexualek egindako lanari esker, lege mailako urratsak eman dira. Nolanahi ere urratsak ematen jarraituko dugu aniztasun eta askatasun sexuala jendartearen esparru orotan gauzatu izan dadin.

- » LGTBI+ komunitatearen kolektiboen errealitateari eta komunitate horren aurkako diskriminazio egoerei eta gorroto delituei buruzko azterlan eta ikerketak egingo ditugu.
- » Egindako ikerketetan oinarrituta, plangintza iraunkorrak martxan jarriko ditugu (LGTBI+ kolektiboekin adostuak), sexu eta genero askapenaren bidean aurrera egiteko neurri espezifikoak bilduko dituztenak.
- » Hezkuntzan sentibilizazio neurriak bultzatzeari lehentasuna emango diogu, jendartearen sexu eta genero identitateen inguruan beharrezkoa den kontzientzia aldatzea bultzatzeko.

- » *Parte hartzeko lankidetzarako gune eta mekanismo lotesle eta iraunkorrak aktibatuko ditugu administrazio publikoaren eta LGTBI+ kolektiboen artean.*
- » *Udaleko kargudun publikoei aurreiritzirik gabeko jarreraren inguruko formazioa emango diegu.*

## **ANIZTASUN FUNTZIONALA**

Aniztasun funtzional fisiko zein psikikoa duten herritarren ongizatea bermatuko dugu, kolektibo honetako kideak ere herritar oso izan daitezten.

Aniztasun funtzionala duten pertsonak eskubide eta betebeharrak berdina izatea lehenetsiko dugu, eta horretarako dauden oztopoak murriztu.

Udalaren esku-hartzea ezinbestekoa eta urgentea da helburuak bermatzeko. Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta bazterketarik eza oinarritzeko giza eskubideak direla ikus araziko diegu Udaletik herritarrei.

- » *Edozein ezgaitasun duen pertsonengana hurbiltzen eta beraien errealitatea eta beharrak ezagutzen jarraituko dugu.*
- » *Pertsona hauen errealitatea gizarteratzeko programak diseinatzeko jarraituko dugu.*
- » *Herriko elkarteetan irisgarritasuna bermatzeko kontzientziazio kanpainak burutu eta diru-laguntzak bideratuko ditugu.*
- » *Herriko eskoletan gai honen lanketa berezia bultzatuko dugu.*
- » *Ezgaitasun bat duten pertsonak Udalaren departamentu desberdinetan lan-praktikak egiteko aukerak sustatuko ditugu; hau da, integrazioaren ikusgarritasuna landu eta errealitate bihurtuko dugu, horretarako dagokien elkarteekin hitzarmenak sinatuz.*

# KOMUNITATE BAT OSATZEN DUGU

## EKONOMIA ETA ENPLEGUA

Enplegu duina eta egonkorra indartu eta saritzeko neurriak, arestian jasoa gelditu den moduan, gure ardatz nagusietako bat dira. Hala ere, ardatz hori gehiago osatuko duten neurriak zehaztu nahi ditugu.

- » Herrian hiru sektoreek sortzen duten enpleguaren (kantitatea eta kalitatea) eta horien ondorioen diagnosi integrala egingo dugu, azken urteetako eboluzioa ezagutu eta aurrera begirako proposamen errealak egiteko.
- » Elikadura-sistema jasangarria eraikitzen eta tokiko nekazaritza iraunkorra sustatzen lagunduko dugu.
  1. Elikadura osasuntsua eta jasangarria sustatuko dugu.
  2. Ondasun naturalen gaineko burujabetzaren azterketa egingo dugu.
  3. Baserritarrak, laborariak, nekazariak (arrantzaleak, abeltzainak...) ardatz hartuko dituen ekoizpen-, eraldaketa-, merkaturatze- eta kontsumo-eredu berrien garapena bultzatuko dugu.
  4. Landa-ingurunearen mantenua eta hobekuntza, eta baserritarrak egiten duten lanarekiko sentiberatzea landuko dugu.
  5. Zarauzko zein eskualdeko "Elikadura Batzordea" sortuko dugu.
- » Enpresa mota edo proiektu berriak sustatzeko ekonomia eredu eraldatzaile baten alde egiteko pausoak emango ditugu:
  1. Eskualde mailan Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) aldeko apustua bultzatuz.
  2. ESE eragileei azpiegitura publikoen erabilera erraztuz herrian.
- » Herriko industria sendotuko dugu, besteak beste, Lanbide Heziketa eta enpresen arteko elkarlana bultzatuz.
- » Enplegu egonkorra eta duina sortzeko urtero 400.000€ bideratuko ditugu enpresetara, gizon-emakumeen arteko soldata arrakala gainditzea lehenetsiz.
- » Bertako merkatu eta komertzio txikiak indartzeko ekimenak bultzatuko ditugu. Azken 10 urteetan egondako mugimenduen eta egoeren diagnostikoa egin eta eskualdeko beharretara egokitutako tokiko merkataritza iraunkorra sustatuko dugu.
- » Turismo eredu jasangarria sustatuko dugu, gure hizkuntza eta kultura aintzat hartzen dituen eta urte osora zabaldua egongo dena.
- » Apartamentu turistikoaren inguruko araudi bat landuko dugu.
- » Udal kontratazioan 1.200 euroko gutxieneko soldata garbia bermatzeko neurriak hartuko ditugu, klausula sozialen bitartez.

## HEZKUNTZA

Hezkuntzan eragitea udalaren ardura ere bada, bai hezkuntza formalean eta bai ez formalean ere. Hezkuntza ez formalean haur eta gazteria sailaren bitartez eragingo dugu eta formalean, berriz, ikastetxeen bitartez. Bi hezkuntza hauek, ordea, elkar eragiten dute, eta horregatik bien arteko elkarlana sustatuko dugu.

Ikastetxeek herriko etorkizuna izango direnen komunitate osoa biltzeko gaitasuna ere ba dute, eta horien bitartez herriko haur eta gazte guztietara iristeko ahalmena izango du udalak. Zarautzen hezkuntza komunitate zabala dugu eta horien guztien eskaerei erantzuteko ahalegina egingo dugu guk, herritar orori kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea eta beharrezko baliabideak bermatuz.

- » Herri Hezitzailea eraikitzeke erronkari erantzuteko gaia lantzen hasiko gara (elkarlanean eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea delako gure nahia, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea).
- » Ikastetxeetan egiten diren programak eskaintzen jarraituko dugu. Programa horien berrazterketa bat egingo da, ikastetxeetako parte-hartzea bermatuz.
- » Behar bereziak dituzten haur eta gazteei beharrezkoak dituzten baliabideak eskaintzen edo bultzatzen jarraituko dugu. Hala nola, euskara ikasteko klaseak, integratzaileko programak (Ongi Etorri) eta eskolaz kanpoko laguntzak (Ikaslagun).
- » Lanbide Heziketa eta enpresen arteko harremana indartuko dugu.
- » Udal jabegoa duten hezkuntza eraikinetako diru partidak mantenduko dira.
- » Zarautzen Hizkuntza Eskola lortzeko beharrezko diren tramiteak egingo ditugu.
- » Eskola kontseiluari indarra ematen saiatuko gara, ikastetxe guztien parte-hartzea eta ahotsa bermatzeko.
- » Adingabeen arrisku eta babesgabetasun egoerak detektatzeko eta esku-hartze goiztiarra gauzatzeko “detekzio eta esku-hartze goiztiarra” programa martxan jarriko dugu, adingabeekin eta haien familiarekin aritzen diren arlo ezberdinetako eragileekin sare lanean: Hezkuntza, Osasuna, aisialdi eta kirola, udaltzaingoa...

## EUSKARA

Herri kulturaren ezinbesteko oina da hizkuntza. Zarautz euskararen arnagune eta indargune izan dadin, herriaren erabateko euskalduntzea izango da gure helburua. Horretarako, euskararen ikaskuntzaz gain erabilera ere indartuko duen udal politika sustatuko dugu.

- » Euskararekiko jarrera eta portaera aktibo positiboak orokortzeko herritar guztien sentsibilizazioan egingo dugu lan.
- » Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izaten jarraituko dugu, erakundeak zehazten dituen helburuak lortzeko baliabideak jarritz.
- » Gurera bizitzera datozen bizilagun berriek euskararen berri izan dezaten ziurtatuko dugu eta ikasteko laguntzak eskainiko dizkiegu.
- » Euskara ikasteko doakotasunaren alde egingo dugu lan.
- » Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko kanpaina eta bitartekoak jarriko ditugu.
- » Euskara turismo eskaintzaren erdigunera ekartzeko egitasmoak antolatuko ditugu.
- » Euskaraldiaren antolaketan laguntzen jarraituko dugu.

## KIROLA

Zarautz herri kirolari eta kirolzalea dugu. Kirola egiten duen herria herri osasuntsua dela jakinda, jarduera desberdinak bultzatuko ditugu udaletik. Herri osasuntsu eta jasangarri batek kirola egiteko espazioak behar-beharrezkoak ditu. Gure gizartea egituratzeko ezinbesteko elementu bilakatu da kirola. Izan ere, jendarte-kohesiorako funtsezkotzat jotzen diren ikaskuntzak bereganatzen laguntzen du, guztion ongizatea garatzen eta gizarte parte-hartzailea sustatzen.

- » Kirol mahaia sortu eta edukiz beteko dugu.
- » Eskola kirolari babesa eta bultzada emango diogu udaletik, herrirako eredu propio bat garatuz, balioak eta elkarbizitza lantzeko erabiliz eta kirol modalitateen arteko oreka bultzatuz.



- » Emakumeen kirola bultzatuko dugu eta merezi duen lekua eta balioa emango diogu.
- » Egokitutako kirola bultzatuko dugu, kirola egiteko zaraustar ororen eskubideak bermatuz.
- » Zarauzko kirol talde ezberdinekin elkarlanean arituko gara, dituzten behar ezberdinak kontutan izanez eta horiei aurre egiteko neurriak hartuz.
- » Azpiegiturei dagokienez, udalak dituen lokalen inbentarioa aztertuko dugu Zarauzko elkarte ezberdinei zabaltzeko asmoarekin eta kirol baliabideen elkarbanatzea bultzatuko dugu.
- » Adinekoen jarduera fisikoa bultzatuko dugu.

## KULTURA

Elkarlana eta sorkuntza erdigunean izango duen herri-kultura, arestian jaso gelditu den moduan, gure ardatz nagusietako bat da. Hala ere, ardatz hori gehiago osatuko duten neurriak zehaztu nahi ditugu.

- » Kultur Mahaia berreskuratuko dugu herriko kultur ekimenak sustatu, koordinatu eta kultura guneak nola antolatu erabakitzeke, herriko sortzaileei egindako lanak ezagutarazteko aukerak emanez.
- » Santa Klara kultura ekitaldietarako eta sormenerako gune bihurtuko dugu.
- » Sanz Enea osoa liburutegi bilakatuko dugu.
- » Villa Munda eta Ebro Etxearen eraberritzeak aztertuko ditugu.
- » Herrian zehar formatu txikiko kultur ekitaldiak antolatzeko erraztasunak emango ditugu.
- » Arte diziplina ezberdinak eta herriko sortzaileak babestuko ditugu, sorkuntza lagunduz eta sustatuz, eta egindako lanak aurkezteko eta ezagutarazteko aukera emanez.

## INGURUMENA

Aipagarriak diren eremuak ditugu herrian. Alde batetik, artelatz baso bakarra eta, bestetik, padurak, hezeguneak eta dunak, esaterako. Horien babesa eta ezagutza oinarrian harturik, ingurunearekiko hurbilagoa den Zarautz bat eraiki nahi dugu.

- » Biotopo babestuak barnebiltzen dituen eremu guztien kontserbazio eraginkorra sustatuko dugu, bertan aurkitzen diren jarduera ezberdinen arautegiei jarraipen zorrotza eginez eta, betetzen ez diren kasuetan, neurri zuzentzaileak ezarritz.
- » Irita heze gune bezala mantenduko dugu.
- » Basogintzarako eremu autoktonoak babesten jarraituko dugu, udalaren eskuetan hartuz interes ekologikoa dutenak.
- » Zarauzko inguruaren ezagutza zabaltzeko, bertako geodibertsitate eta biodibertsitatearen inguruko hezkuntza plana martxan jarriko dugu eskola ezberdinekin elkarlanean.

### Hondakinak:

Egun martxan dagoen birziklapen sistemari bultzada berri bat emango diogu, ditugun sailkatze tasa areagotuz eta kota berriak bilatzeko baldintzak sortuz.

- » Denboran mantenduko diren sentsibilizazio kanpainak egingo ditugu, sailkapen tasa igo dadin.
- » Ikuskari/hezitzaile kopurua handituko dugu.
- » Bolumen handiko zaborraren bilketa egiteko sistema berraztertuko dugu.

# MUGIKORTASUNA

Mugikortasuna ez da soilik herriko kaleak guztiontzat erosoagoak izatea. Atzetik bizi eredu sozial eta ekonomiko oso baten aldaketa ekarri behar du. Azken hamarkadetan daramagun bizimoduak hirigintza molde batzuk bultzatzen ditu, baina gaurko beharrei ezikusiarrena egin gabe beste herri bat posible dela erakutsi nahi dugu. Diseinu hori planifikazio baten barne egin behar da. Alegia, Zarautzi egokitutako Mugikortasun Plan bat garatu beharra dago herritarren partaidetza kontuan izanik.

Garbi izanik biztanle askok eta askok egunero mugitu beharra daukatela, helburua izango litzateke herrian zehar ahalik eta auto gutxien ibiltzea eta, jendeari mugitzeko aukera murriztu gabe, desplazatzeko beste eredu batzuk eskaini eta sustatzea.

- » *Herritar guztien irisgarritasuna bermatuko duen Mugikortasun Plana bultzatuko dugu, gai honetan hartu beharreko etorkizuneko neurrien oinarri izan dadin.*
- » *Plan honetako ekintza plana diseinatuko dugu, lehentasunak identifikatuz, eta honen arabera lanketa garatuko dugu.*
- » *Heziketa eta sentsibilizazio kanpaina eraginkorrak egingo ditugu, herritarren ohiturak aldatu eta erabilpen egokiak bultzatzeko.*
- » *Autopista oinarri izango duen doako saihesbidea martxan jarriko dugu, Errotaberri eta Abendañoko industria gunekin lotura zuzena bermatzeko, herritik igaro gabe,.*
- » *Nafarroa kaleko bulebarizazioa lortzeko pausuak emango ditugu.*
- » *Bizikleta bide sarea osatu eta zabaltzeko urratsak emango ditugu.*
- » *Garraio publikoaren eskaintzaren etengabeko garapena bultzatuko dugu.*
- » *Auto partikularren erabilpen egokia bultzatuko dugu, ibilgailu konpartituen sistemak edo Car-Sharing bezalako egitasmoak sustatuz.*
- » *Trenbidearen arazoari irtenbidea emateko, beharrezko azterketa eta plangintzari berriz helduko diogu, proiektu bat osatu eta etorkizunean errealitate bat izan dadin.*

# AUZOAK

Auzoak dira herri baten arima. Auzo bizi eta dinamikoak nahi ditugu Zarauzko herri osasuna bermatzeko. Hori horrela izan dadin harreman zuzenak eta eraginkorrak antolatu behar dira auzo bakoitzeko herritar eta auzo elkarteekin, azken hauek duten garrantziaz ohartuz.

- » *Auzoen ahotsa kontuan izateko aldi-aldi udalbatzako kideak auzo batera hurbilduko gara.*
- » *Auzo Elkarten Kontseiluaren sorrera aztertuko dugu.*
- » *Auzoen mantenu egokia bermatuko dugu: auzo guztietatik pasako gara, auzotarrek beharrezkotzat jotzen dituzten obra zibil txikietarako edo bestelako lantxoetarako proposamenak jasotzera. Lanketa hauek auzo elkarteekin koordinatuko ditugu.*
- » *Auzo bakoitzean gutxienez komun publiko bat izatea bermatuko dugu.*
- » *Kale garbiketa zerbitzuari bultzada berezia emango diogu baliabide gehiago eskainiz, bereziki herriko puntu beltzei zuzendua. Sentsibilizazio kanpainak areagotuko ditugu.*
- » *Espaloien koskak kendu eta behar diren guneeetan espaloien zabalkuntza eta zoru aldaketa bideratuko ditugu, lehentasuna Vista Alegre, Zelai-Ondori eta Mendilautari emanaz.*

# GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HERRIEN ELKARTASUNA

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuenako koherentzia da; garapenerako politikei ikuspegi koherente batetik begiratzea, alegia.

Nazioarteko Lankidetzaz ari garelarik, gizarte-mugimenduen egitekoa nabarmendu behar dugu.

Hortaz, herritartasunaren eta demokraziaren bidean aurrera egin nahi badugu, gizarte-mugimenduak indartu beharko ditugu, ezinbestean.

- » *Legez ezarritako aurrekontuaren %0,7 esleitzea mantenduko dugu.*
- » *Zarauzko Gobernu Kanpoko erakundeek lana aintzat hartu eta balioa emateko ekimenak sustatuko ditugu.*
- » *Herrien Elkartasunean aritzen diren herriko elkarte eta erakundeak bilduko dituen batzordeari jarraipena emango diogu, harremanak saretzeko eta Udalaren eta herriko eragileen arteko bilgune iraunkor moduan aritzeko.*
- » *Ipar Euskal Herriko herriren batekin senidetzea proposatuko dugu.*

## UDALTZAINGOA

Udaltzaingoaren eguneroko jarduna gertutasunean eta prebentzioan oinarritu behar da, elkarbizitzan sortzen diren gatazka eta eztabaidetan bitartekaritza lana zabalduz.

- » *Udaltzaingo eraginkor bat izateko giza baliabide gehiagorekin hornituko dugu –batez ere, gaueko txandetarako–.*
- » *Eguneroko jarduna aurrera eramateko azpiegitura modernoaz hornituko dugu.*
- » *Kontratazio eredu propio bat garatuko dugu, formazio programekin.*
- » *Segurtasunaren tokiko kontseilu berria sortuko dugu.*



[www.ehbilduzarautz.eus](http://www.ehbilduzarautz.eus)